

**HIZKUNTZA BERRI BAT IKASTEKO METODOLOGIA****Harremanetarako hizkuntza/Hizkuntza akademikoa****Elkarrizketarako jabekuntza (gaitasuna)/Harremanetarako hizkuntza (BICS)
Jabekuntza akademikoa/Hizkuntza akademikoa (CALP).**

Hizkuntzak eskolako esparruan bi erabilera mota dauzka:

1. Erabilera ez-formala: harremanetarako hizkuntza.
2. Erabilera formala: hizkuntza akademikoa, ikasketekin lotura duena.

Hori bigarren hizkuntzen irakaskuntzan garrantzi handia izan duen bereizketa da eta hainbat herrialdetan kontuan hartu izan dute ikasle atzerritarren hezkuntza-programak eta ebaluazioa diseinatzerakoan.

Hainbat ikerlarik Suedian (finera hiztunekin), Kanadan eta AEBn eskola-giroan beste hizkuntza bat ikasten ari ziren ikasleen ebaluazioak aztertu zituzten eta konturatu ziren irakasleek eta psikologoek zera pentsatzen zutela: ikasle bat ingelesez hitz egiteko gai zenean, hizkuntza horretan zituen zailtasunak gaindituak zituela. Baina ikasle horien emaitzak ez ziren batere onak arlo akademikoan eta froga psikologikoetan. Izan ere, gelan esaten dena gutxi gorabehera ulertzeak, irakasleak egiten dituen galderei erantzuteak ez du esan nahi hizkuntza menperatzen denik. Baina ikasleak egoera horretan daudenean, irakasleoi iruditzen zaigu ikasleek, jadanik, hizkuntza ikasi dutela eta ez dutela laguntza gehiago behar ikasketekin jarraitzeko.

Horri "itxura linguistikoa" deitu izan diote, eta nolabait esateko hau esan nahi du: begi bistan agertzen dena ez dela benetan atzean dagoena.

"La experiencia muestra que la facilidad con que aprenden a hablar sueco los niños inmigrantes puede representar un conocimiento superficial de la lengua, una fachada que esconde graves deficiencias en vocabulario, lectura, comprensión y formación de conceptos, mientras que estas mismas deficiencias aparecen en la lengua materna".¹

Goiko adierazpen horrek hizkuntzaren jabekuntzaren bi esparru nabarmentzen ditu: bata, hizkuntzaren jabekuntza elkarrizketa bat jarraitzeko, eta bestea, hizkuntzaren jabekuntza ikasketak egiteko. Horrela, Cumminsek eskolako testuinguruan izaten den hizkuntza-jabekuntzan bereizketa bat proposatzen du:

¹ 1973 urteko Suediako Hezkuntzako txostena.



HARREMANETARAKO HIZKUNTZA (BICS)	HIZKUNTZA AKADEMIKOA (CALP)
<p>Hizkuntzaren ahozko erabilerarekin lotua.</p> <p>Elkarrizketetan parte hartzeko, agurtzeko, adostasuna/desadostasuna adierazteko, informazio bat eskatzeko eta abarrerako erabiltzen den hizkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none">- Etxean ikasten da.- Hemen eta orain printzipioan oinarritzen da.- Testuinguruaren laguntza handia dauka.- Esanahia negoziatu daiteke.- Sintaxia eta egitura linguistiko sinpleak.- Lexiko ezaguna.- Kognitiboki eskakizun gutxikoa.	<p>Hizkuntzaren idatziko erabilerarekin lotua.</p> <p>Galdetzeko, erantzuteko, erkatzeko, laburpenak egiteko, ondorioak ateratzeko, argudioak emateko eta abarrerako erabiltzen den hizkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none">- Eskolan ikasten da.- Hainbat erregistro eta forma dauzka.- Ez dauka testuinguruaren laguntzarik.- Esanahia testuan dago.- Sintaxia eta egitura linguistiko konplexuak.- Era askotako lexikoa eta konplexua.- Kognitiboki eskakizun handikoa.

Ume batek, eskolara heltzen denean, nolabait garatua du elkarrizketarako gaitasuna. Eskolan hizkuntza akademikorako gaitasuna lantzen da, gehienbat. Gaitasun horrek eskolako hizkuntza islatzen du eta ikasle batek, ikasketetan arrakasta izateko, menperatu egin behar du.

Beste ikerlari batek, Pauline Gibbonsek (1991) antzeko bereizketa egiten du eskolako hizkuntzaz: *Patioko hizkuntza/eskolako hizkuntza*.

“Este lenguaje de recreo incluye el lenguaje que permite a los niños hacer amigos, participar en juegos e intervenir en las actividades diarias que desarrollan y mantienen los contactos sociales. Por regla general, se produce en el contacto cara a cara y, en consecuencia, es muy dependiente del contexto físico y visual y del lenguaje corporal y gestual. La fluidez con este tipo de lenguaje es un arte importante del desarrollo del idioma, sin él el niño estaría aislado de la vida social normal del patio de recreo...”

Sin embargo, el lenguaje del patio es muy diferente del usado por los maestros en el aula y del que esperamos que aprendan a utilizar los niños. El lenguaje de patio no es el relacionado con el aprendizaje de las matemáticas, las ciencias sociales, o las ciencias naturales. Por regla general, la situación del patio no da a los niños la oportunidad de utilizar un lenguaje como: *si incrementamos el ángulo en cinco grados, cortamos la circunferencia en dos partes*. Tampoco suele requerir la utilización del lenguaje relacionado con las destrezas de pensamiento de orden superior, como elaborar hipótesis, evaluar, inferir, generalizar, predecir o clasificar. Sin embargo, éstas son las funciones del idioma que están relacionadas con el aprendizaje y el desarrollo de la cognición; surgen en todas las áreas del currículo y, sin ellas, no puede realizarse el potencial de un niño en las áreas académicas.”

Ikerketek diote 2 urte nahikoa duela ikasle etorkin batek elkarrizketa arruntetan hitz egiteko haietan parte hartzeko aukera baldin badauka, baina 5-7 urte bitartean behar dituela hizkuntza akademikoan trebatu eta haren kideek duten maila lortzeko. Gandarak (1999), Kaliforniako ikasleen emaitzak aztertu ondoren, esaten du ikasle etorkin bat hiru urtean gai dela hizkuntza berria ondo ulertzeko eta hitz egiteko, baina denbora gehiago behar duela irakurketaren eta idazketaren trebetasunak garatzeko. Zergatik behar dira urte gehiago CALP gaitasuna garatzeko?

Arrazoiak jakokuntza mota horren ezaugarrietan aurki daitezke: ahalegin kognitibo handia eskatzen du, ez du testuinguruaren laguntzarik, pentsamenduaren beste trebetasunak erabiltzea eskatzen du eta, gainera, lotura handia du umearen ezagutzarekin (aurretiko ezagutzarekin).

Eskolaratzean aurrera joan ahala, ikasleek hizkuntza gero eta konplexuagoa erabili behar dute. Testuak askoz ere zailagoak dira ikasturteetik ikasturtera (ikus besterik ez dago adibidez, Lehen Hezkuntzako bigarren mailako eta bosgarren mailako testu-liburuen




artean dagoen aldea). Hori, ordea, ez da gertatzen egoera arruntetako hizkuntzarekin: ez da oso desberdina izaten 7 urteko ikasle batek erabiltzen duen hizkuntza eta 12 urteko beste ikasle batek erabiltzen duena.

Bada beste arrazoi garrantzitsu bat: ikasle etorkinek finkoa ez den helburua lortu behar dute. Hau da, gelako kideak ere CALP gaitasuna ari dira lantzen eskolan (ez da gauza bera lantzen 7 urteko ikasleekin eta 12 urtekoekin) eta hizkuntza ikasten ari direnek "harrapatzen" dituztenean gelako lagunek beste urrats bat eman dute.

Eskolan egiten diren atazen eskaera linguistikoa hobeto azaltzeko, BICS eta CALPen arteko desberdintasuna esparru baten barruan kokatzen du Cumminsek. Esparru horretan, umearen hizkuntza-garapenean garrantzi handia duten bi faktore aipatzen dira: testuingurua eta ahalegin kognitiboa.

Irudian bi gaitasunen errepresentazioa dago, eta nolabait *continuum*aren markatzen dute:



BICS gaitasuna (A) "erraza": testuinguruaren laguntza dauka, erraz ulertzen da; beraz, ahalegin kognitibo txikia eskatzen du.

CALP *continuum*aren beste muturrean "zaila": testuinguruaren laguntzarik eza. Ez du laguntzarik testua ulertzeko; beraz, ahalegin kognitibo handia eskatzen du.

Eskolako jarduerak koadrante hauetan koka ditzakegu. Hona hemen adibide bat:

Koadrantea	Jarduera-mota	Ezaugarriak
A	Irudi bidezko laguntza duen elkarriketa	Testuinguruaren laguntza. Ahalegin kognitibo txikia
B	Irakurketa gidatua	Testuinguruaren laguntza. Ahalegin kognitibo handia
C	Arbeletik zerbait kopiatzea	Testuinguruaren laguntzarik ez. Ahalegin kognitibo txikia
D	Argudiozko testu bat idaztea	Testuinguruaren laguntzarik ez. Ahalegin kognitibo handia

(Ikus dokumentu honen amaieran Elizabeth Coelhok, grafiko horretan oinarrituta, egindako lana: ikasleekin jarraitu beharreko estrategiak eta jarduerak motak).



Bi gaitasun horiek ahozko eta idatzizko hizkuntzetan aplika daitezke, nahiz eta BICSk lotura handiago izan ahozkoarekin eta CALPek idatzizkoarekin. Dena den, eskaera kognitibo txikia eskatzen duen tokian egon daiteke —adibidez, lagun bati e-mail bat idaztea— eta handian ere bai —programa elebidunei buruzko eztabaida batean parte hartzea—.

Ikasle guztientzat zaila bada hizkuntza akademikoaz jabetzea, are zailagoa gertatzen zaie ikasketak berria zaien hizkuntza batean egin behar duten ikasleei. Izan ere, hizkuntza akademikoa ikasteko erabiltzen den hizkuntza da, funtzio asko eta asko ditu; esaterako, hauek: deskribatu, sailkatu, inferitu, ondorioak atera, konparatu, argudiatu, laburtu, eskemak egin, problemak ebatzi, iragarri, analizatu...

Horregatik, ikasle etorkinekin hizkuntza akademikoa esplizituki landu behar da, baina ez hori bakarrik: hizkuntza mota hori ulertzeko eta garatzeko estrategiak ere esplizituki landu behar dira.


Eskolako hizkuntzak ahalegin kognitibo handia eskatzen du, eta ulerkorra izan dadin, ezinbestekoa da testuinguruaren laguntza. Lanak diseinatzerakoan talde-lana bultzatu beharko da, irudiak erabili beharko dira, hiztegia ondo landu, galderak egin ulertu dela ziurtatzeko eta abar.

Jarduerak urratsez urrats diseinatu beharko ditugu eta behar diren laguntzak eskaini. Horrela, ahalegin kognitiboa gutxitu egingo litzateke, edo lana erraztean, ikasleek hobeto ulertu eta edukiak ikasteko aukera izango lukete.

Bukatzeko, ingurune eskola batean egin daitezkeen jarduera multzo bat aipatzen dira, eskema honetan oinarrituta:

Egoera: *Ingurune eskola batean elektrizitateri buruzko proiektu bat garatzen ari dira.*

Ikasleek, talde-lanean, elektrizitatea eroaten duten materialak bilatu behar dituzte.



A Ikasleen artean egiten ari direnari buruzko elkarrizketa daukate. Testuinguru argia da; beraz, zertaz hitz egiten den inferi daiteke.

B Ikasleek lana irakasleari azaltzen diote. Horrek ikasleek esandakoa berriro kontatzen du, baina hiztegi akademikoa erabili eta erregistro-aldaketa egiten du: hizkuntza akademikoa erabiltzen du, ahalegin kognitibo handia eskatzen duena, baina testuinguruaren laguntza du.

D Ikasleek egin dutenari buruzko txostena idatzi behar dute. Irakaslearekin ikasitako hitzak eta esapideak erabiliko dituzte.



Horrelako sekuentzia batean honako prozesu hau izaten da:

1. Ikasleek kontzeptuak ulertu dituzte. Kontzeptuak ulertzen laguntzeko, testuingurua eskaintzen zaie.
2. Hizkuntza akademikoa elkarren artean "eraiki" dute, irakaslearen laguntzaz.
3. Hemen eta orainean zentratuta egotetik —hau da, testuinguru konkretuan egotetik— testuingururik gabeko ekoizpenera pasatu da (txostena egitea).

Irakurketa gehigarriak

CUMMINS, J. (2002). "Lenguaje, poder y pedagogía". Madrid. Morata.

COELHO, E. "La transversalidad del aprendizaje lingüístico en el currículo: el proceso de andamiaje en la educación" in LASAGABASTER, D.; SIERRA, J. M. (2005) "Multilingüismo, competencia lingüística y nuevas tecnologías". Barcelona. ICE-HORSORI.

GIBBONS, P. (1991). "Learning to learn in a second language". Newtown, Australia. PETA.

<http://www.iteachilearn.com/cummins/bicscalp/htm>



Eskakizun kognitibo txikia

A KOADRANTEA: HASIERAKOA

Ikasleak harreman sozialetarako hizkuntza (BICS) garatzen hasten dira, haien beharrekin eta bizitzekin lotutako edukien eta atazen bidez.

Estrategia hauek erabili behar dira:

- Ulermenean oinarritutako irakaskuntza.
- Laguntzen duen feedbacka.
- Ikasleen ama-hizkuntza.
- Ikasketa kooperatiboa.
- Mintzaira funtzionala.
- Irudi bidezko laguntza.
- Esperientzian oinarritutako irakaskuntza.
- Mota askotako testuak.
- Kopiatu/etiketatu.
- Mugimenduzko jarduerak.
- Kantak, role play.
- Norberaren bizitzan eta esperientzietan oinarritutako istorioak.
- Grabatutako istorio motzak.
- Jolasak, puzzleak.

B KOADRANTEA: ERDIKOA

Hasierako urratsa gainditzen doazen ikasleak has daitezke B koadranteko lanak egiten nahiz eta BICS gaitasuna garatzen egon. Ikasle batzuk prest egon daitezke koadrante honetako atazak egiteko.

Ikasteak gero eta ahalegin handiagoa eskatzen duen neurrian, A koadranteko estrategiekin jarraitu behar da, CALP garatzen hasteko behar duten laguntza ematen diete-eta:

- Ulermenean oinarritutako irakaskuntza.
- Laguntzen duen feedbacka.
- Ikasleen ama-hizkuntza.
- Ikasketa kooperatiboa.

Ikasteko estrategia hauek emango dute aukera hizkuntza-ikasle eraginkorrak izateko:

- Ideia gakoa erakusten duten antolatzaile grafikoak.
- Irakurketa gidatuak.
- Hiztegiaren irakaskuntza bateratua.
- Gramatikaren irakaskuntza bateratua.
- Lagundutako idazketa-prozesua.
- Egunerokoak.
- Proiektu gidatuak.

C KOADRANTEA:

Atal honetako lanek eskakizun kognitibo txikia eskatzen dute eta, gainera, H2ko ikasleentzat ulertezinak izan daitezke.

Ez dira egokiak hizkuntza akademikoan aurreratzeko, alde batetik, testuinguruaren laguntzarik ez dutelako, eta, beste alde batetik, ez dutelako hizkuntzaren irakaskuntza bultzatzen.

Atal honetako jarduerak hauek dira: arbeletik zerbait kopiatzea, zerbait buruz ikastea...

Erne egon behar da garatzen diren hainbat proiektuekin; izan ere, nahiz eta ondo diseinatuta egon, ikasleek ulertzen ez badituzte eta behar bezalako laguntza jasotzen ez badute, atal honetakoak bihur daitezke. Ikasle askok testuetatik esaldiak kopiatzen burutzen dituzte lanak, zer jartzen duten jakin gabe, ulermena inola ere garatu gabe.

Beraz, hizkuntza ikasten ari diren ikasleek denbora gutxi eman beharko lukete atal honetako jarduerak egiten.

D KOADRANTEA: AURRERATUA

B Koadranteko gaitasuna lortu duten ikasleak prest daude atal honetako atazak egiteko. Atazok hizkuntza eta eskakizun kognitibo handia eskatzen dute. Maila honetako ikasleek espektatiba altuak eta errekurso asko dauzkate: baina oraindik ere laguntza beharko dute hiztegia lantzeko, hainbat esaldi eraikitzeko eta hizkuntza ikasten laguntzeko estrategiak garatzeko.

Erne egon beharko da, batez ere, kultura-erreferente ezezagunak agertzen direnean.

Estrategia hauek garrantzia daukate:

- Ulermenean oinarritutako irakaskuntza.
- Laguntzen duen feedbacka.
- Ikasketa kooperatiboa.
- Ideia gakoa erakusten duten antolatzaile grafikoak.
- Irakurketa gidatuak.
- Hiztegiaren irakaskuntza integratua.
- Idazketa-prozesua.
- Egunerokoak.
- Gidatutako proiektuak.

Ikasleek laguntza gutxiago beharko dute baina ez da guztiz desagertu behar. Estrategia mota horiek ikasle guztiei laguntzen diete.